


EUSKAL HERRIKO KRISTAU ELKARTE HERRITARRAK

***** E U S K A L H E R R I A *****

=====



EUSKAL HERRIKO

KRISTAU ELKARTE

HERRITARREN

BERBERATASUNA

ETA

ANIZTASUNA



ZARAUZ - 1991 - MARTXOA

EUSKAL HERRIKO
KRISTAU ELKARTE HERRITARREN
BERBERATASUNA
ETA
ANIZTASUNA

- 1.- KRISTAU ELKARTE HERRITARREN EGOERAREN AZTER-
KETA EUSKAL HERRIKO EGUNGO TEXTUINGURUAN.
- 2.- BATASUN ETA ANIZTASUN - ERIZPIDEAK KRISTAU
ELKARTE HERRITARRETAN.
- 3.- EUSKAL HERRIKO KRISTAU ELKARTE HERRITARREN
PRAKI ANIZKORRA.
- 4.- ONDORIO ERAGILEAK.

**

*

EUSKAL HERRIKO KRISTAU ELKARTE HERRITARREN BERBERATASUNA ETA ANIZTASUNA

1

0.1. Euskal Herriko Kristau Elkarte Herritarrak Nazaretoko Jesusengan, Jaunagan, dugun fedeak irudikatzen gaitu, Haren jarraitzaile izan nahi bait dugu klase eta sektore herritarrekiko solidaritatez eta erantzukizunez era guztietako zapalkuntza pertsonal, sozial eta nazionaletatiko askapen prozesuaren baitan. Gaur egun Euskal Herriak jasaten dituen zuzengabekeriei buruzko kontzientziakuntzaren bidez Jainko askatzailearen ahotsa eta indarra aurkitu ahala sinestu nahi genuke.

0.2. Bizi ditugun egoeren konplexutasunak eta zenbait gertaera eta esperientzia ezberdinei buruz jarrera hartu beharrak areagotzen doan planteamenduen aniztasunera garamatza elkarte gure mugimendu honetan.

0.3. Konstatazio honen aurrean haxe da gure galdera, hots, nola bateratu gure berberatasuna ezinbesteko aniztasunarekin, barreiakuntza-bide izan ez dadin eta, aldiz, bizitzeko eta sinesteko moduaren aberasgarri eta jarritako helburuen indargarri bilaka dadin.

Momentu kritiko hauetako gogoeta bateratu hau oinarritzko gure kristau mugimendua indartzeko bide izatea nahi dugu, ebanjelioaren arnasaz zerbitzu eraginkorra gerta dadin gure herriarentzat.

1.- Kristau Elkarte Herritarren egoeraren azterketa Euskal Herriko egungo textuinguruan

1.1. Arazoaren konplexutasuna eta gure herriak daraman burruka luzea dela eta, askoren jarrerak aldatuz joan dira. Arazo hauek Euskal Herriko maila eta gune guztiak ukitzen dituzte. Honenbestez, aukera politiko eta sozialak errotikako kontrakotasunaz bizi ohi dira, bai ideologia eta bai praktika alorretan.

Guri dagokigunez, zera ikusten dugu, ezberdintasun horrek pertsona eta elkarte gisa ditugun jarreretan ere ba duela eraginik: bai prozesu herritarrak ulertzeko eta beraietan erantzukizunak hartzeko orduan eta bai Elizaren baitan bizitzeko tankeran ere eta gure herriko jazoerei eta dituen beharrei buruz hartzen ditugun elkarte-aukeretan.

1.2. Zenbait kasutan zera egiaztatzen dugu, kristau elkarte herritarren oinarritzko aukeretatik nabarmenki urrutiratzen diren ala desgogora aurkitzen diren kideen arazorik ba dutela zenbait elkartek. Eliz eta gizarte inboluzio garai hauetan gehiengo dominatzailearen bideetan bai sinestedun bezala eta bai herritar bezala desagertuta galtzeko arriskua dugu.

Bestalde elkarte eta elkarteetako kideen urritzea egiaztatzen dugu eta, halaber, hainbesteren nekea, etsipena eta desorientazioa batetik, eta elkartei kristau mugimendu askatzaile gisa aintzinarazteko laguntza eman diezaieketen aintzindarien eta pertsonen falta bestetik.

Guztihonek ba du eraginik sakabanakuntzan eta eraginkortasun-ezean, koherentzia eta eraginkortasuna inoiz baino beharrezkoago ditugun abagadune honetan Euskal Herriaren bilakaera askatzaile eta ebanjelizatzaileari begira.

Eraginkortasun eta indarberritze-premia honek, hala kopuruari hala koordinaketari dagokionez, gure oinarritzko kristau mugimendua beste eliz-talde batzuegana irekitzea galdatzen digu beraiekin harremanetan eta elkarlanean jartzeko, Jesusenganako fedearn arnasaz gure herriaren zerbitzu askatzailearen ahaleginetan aritzeko eta oinarritzko kristau mugimendurantzko bidean aurreratzeko.

1.3. Egoera eta eskakizun hauen aurrean elkarteak ulertzeko moduari buruz gogoeta egin nahi dugu eta honako galdera hauek azaldu: ¿Zer da elkarte izatea? ¿Zerk deitzen eta biltzen gaitu gure elkarteetan? ¿Ze eskakizun dakarkigu kristau elkarte herritar izateak? ¿Ze ondoren ekar dezake elkarte mota ezberdinetara irekitzeak eta noraino onar dezakegu hori aniztasun koherentearen barnean?

Galdera hauek funtsezko gure jarrerak ukitzen dituzten galdera sakonagoetara garamatzate. ¿Nola mugatu eta adierazi zer garen eta zer nahi dugun Jesusengan sinesten dugunok eta Haren zuzenbide eta bake Erreinuaren eraikitzaileak geure herrian garenez? ¿Zein planteamendu sozio-politiko etor daitezke bat gure herri eta klase-aukerak? ¿Noraino eta zein mailatan dira elkargarriak gure aukerak eta jokamoldeak? ¿Nola zehaztu eta lotu ditzakegu, gaur egun, herri eta klase-aukera? ¿Noraino eta zein maila eta neurritan da elkargarri gure elkarteetan, kohesioa apurtu gabe, batasuna, koherentzia eta eraginkortasuna mantentzen dituzten aniztasun sinestea?

1.4. Ez da gauza erraza galdera hauei erantzutea barne muinean dituzten korapiloak kontutan izanik. Bestalde, egungo textuinguru politiko eta eliztarrak geroz eta gehiago baldintzatzen du aukeren askatasuna eta aniztasuna. Segurtasunarekiko itsumenak eraginda edozein ezberdintasun eta gatazka saihestera bultzatzen ditu asko eta asko. Uniformetasuna eta menpekotasuna nahiago dituzte edo, gehienik ere, ereformismo soila, fede askatzailearen bizipenaren hesparruko bilaketaren ezerosotasuna baino.

Guk, ordea, Jesusenganako fedea bilaketa horretara bultzatzen gaituela uste dugu eta bizi ditugun egoera gatazkatsuetan eta egoera horiek abiapuntutzat hartuz hain zuzen, fede hori onartzera. Ez dugu zatiketarik bilatzen. Baina, bestalde, ezin ditugu onartu konponketa kontziliagarri errazak. Onartu egiten dugu ezberdintasuna eta aniztasun aberasgarriko den elkarrizketa-eskubidea eskatzen dugu, bai gizartearen eta bai elizaren barnean.

2.- Batasun eta aniztasun-erizpideak Kristau Elkarte Herritarretan

2.0. Jesusen proiektuarekiko gure elkarten leialtasuna, geure herriko hesparruan, ez da generikoa eta koiunturazkoa. Elizaren barnean dugun berberetasunari eta Euskal Herriko beste talde eta kolektiboekin batera daramagun praxi konprometatuari sendotasuna eta koherentzia damaiotren erizpide hausnartuetan finkatzen da hain zuzen.

2.1. Batasunaren gakoak Jesusen jarraipenean.

2.1.0. Kristau elkarte izateak batasuna eta aniztasuna eskatzen --

ditu funtsezko lotura bezala, ezinbestekoak diren ezberdintasunen tartean, noski. Batasun eta elkarte-harreman hau honako zedarri hauetan oinarritzen da:

2.1.1 Nazareteko Jesusenganako fedea bizi-aukera historikoa da eta, beraz, bizi garen eta lan egiten dugun Euskal Herriko errealitatean kokatua. Honek zera esan nahi du, gure fedearen gunea Jesusengan dagoela, jarraitu nahi dugun Kristorengan eta Jaunarengan. Jesus Jainkoaren gantzutua bezala azaltzen zaigu mundu honetako morroi eta mirabeen kide izanik heuretari bat gehiago bilakatuz (Fil. 2,6-7) eta gizartearen zapaltzaileei heriotzaraino aurrez aurre jarririk. Beraz, herri-kidetasuneko textuinguru horretan gauzatu nahi dugu gure fedea, bizi dugun textuinguru historikoaren hesparuan.

2.1.2. Gure elkartean fedea harremanezkoa eta komunitarioa da, hau da, bizipenen, usteen, pertsona zein talde mailako esperientzien, ondasunen komunikazioaren, ospakizunaren eta zerbitzuzko praxi askatzailearen partaidetzaz irudikatua hain zuzen. Esperientzia honen baitatik eliz herritarra sentitzen gara; ez eliza instituzionalarekiko kontrakotasunik dugulako, baizik explotatu, zokoratu eta zapalduetik harremanengatik baino, hauexek bait dira, zorionbideetan iragarten denez, Jainkoaren Erreinuaren erreferentzia-puntua eta gunea.

Ikuspegi honetatik gure fede eta berberatasuna katolikuak dira munduko herri gutxiagotu guztiekin eta askapenaren eta justiziaren alde burukatuz Jainkoaren Erreina eraikitzen ari diren guztiekin solidario sentitzen bait gara.

2.1.3. Espirituaren baitan identifikatuak sentitzen gara, hotz, espiritualitate askatzailean adierazten den fedea bizitzeko eta Jesusi jarraitzeko moduan, fede honen ezaugarriak honako hauek direlarik: pobreen baitatik Jesusi jarraitzea, esperantza eta leialtasuna, kontenplazio-jarrera, dohantasuna eta sinpletasuna, alaitasuna.

2.2.1. Lehenik, Jesusenganako fedea, indar alienatzaile izatetik at, balore sakon eta erabakiorra da guretzat, esperantzaren eta geroz eta gizakorragoa, anakorragoa eta solidarioagoa izan behar duen munduaren aldeko utopiaren lehian motibatu eta mantendu egiten gaituena.

2.2.2. Anaitasun eta solidaritate balore hauek, hala eskubide pertsonaletan hala kolektiboetan, pobreen eta zapalduenen errealitate konkretuari begira ulertzen ditugu. Hortaz, gure aukera askapen nazional eta sozialeko prozesuan murgildutako klase eta sektore herritarrekiko solidaritateak mugatzen du.

2.2.3. Espiritualitate askatzailearen baitan ezinbestekotzat jotzen dugu gure herriko eta munduko pobre guztietan azaltzen den Jainkoarenganako konbertsioa eta irekitasuna. Balorapen espiritual honek justiziaren eta bakearen aldeko burrukan konpromezu-praxia esan nahi du.

2.2.4. Elkarte izateak guretzat zera esan nahi du, fedea amankomunean bizi izatea herri-konpromezuaren barnean, esperantza eta gure planteamenduekiko etengabeko leialtasuna beharrezko aukera bezala mantentzeko.

2.3. Aniztasuna gure elkarteetan.

2.3.0. Gure berberatasunak barrietatea eta ezberdintasuna eskatzen du aipatutako aukerekiko leialtasun amankomunean, noski. Hortaz, Kristau Elkarte Herritar bezala honako hauek gure bereizgarri izatea nahi genuke, hots, irekitasuna eta malgutasuna eta elkarrizketa-jitea bai gure mugimenduaren barnean eta bai Elizaren barne zein kanpoko beste mugimendu eta taldeekin.

2.3.1. Zehaztuz, gure taldeen beharrezko ezaugarri bezala ulertzen dugu aniztasuna, gizonak eta emakumeak, gazteak eta helduak baitira taldeetako kide eta gaztetxo eta haurrek ere loturak bait dituzte elkartekideekin.

2.3.2. Kristau Elkarte Herritarretako kideak toki eta herri-egoera ezberdinetatik gatoz, esperientzia eta jokamolde ezberdinetatik; horregatik, bada, definitzen gaituzten aukerak eta baloreak ulertzeko eta bizi izateko moduak garapen anizkorrak dituzte.

2.3.3. Textuinguru hauen barnean, gure herri eta klase-aukera errealitate zapalduenen eta zokoratuenen alde agertzeak jarrera eta praxi politiko ezberdinak dakartza eta, honenbestez, oinarrizko gure kristau mugimendua ez da sigla politiko batzuekin bateratzen.

2.3.4. Gure errealitate sozial eta nazionaleko premia ugarien aurreango praxi askatzailea era oso ezberdinetara hezurramitzen da gure artean, konpromezu eta tokigune ezberdinetan: gure herriaren eskubide kolektiboen alde, hizkuntza eta kulturaren alorrean, ingurune ekologikoaren alde, baldintza zuzenetako normalkuntza sozio-politikoaren alde, gure gizarteko maila eta sektore guztietako zokoratze mota guztien kontrako burruketan. Herri-prozesuetan txertatu eta aritzeko moduen ezberdintasun hau hezurramitutako eta textuingurututako gure fedearen adierazpena besterik ez da.

2.3.5. Gure elkarte-bizitzaren bizipenak eta errealizazioak gauzatze tankera ezberdinak ditu urte hauetan zehar. Ez dago gure artean elkarte-bizitzaren eredu bakarrik ; fede, konpromezu eta bizitza-erlazioa elkarte bakoitzaren baldintzetara egokitzen da eta elkarte hori osatzen duten pertsonen ahalbideetara.

2.3.6. Gure elkarteak Elizaren osagai dira, Jesusengan sinestean garenaz Elizaren partaide bait gara. Halaz ere, lotura instituzionala ezberdina da, parrokiaren barnean ari diren elkarteetatik hasi eta eliz instituzioekin lotura zuzenik ez duten elkarteetaraino.

2.3.7. Barrietate honek sortzen ditu gatazkak eta dibergentziak. Halaz ere, ezberdintasun hauek ez dira ezkorrak baizik onartu beharrekoak dira baldintza hauetan:

- . elkarrizketa irekia eta eraikitzailea dogmakeria eta absolutismorik gabe.
- . arreta eta zentzu kritikoa gure berberatasunean eta aukeretan adierazitako ereizpideen arabera.
- . tankera irekia sasi kontziliapenik gabe planteamendu eta ekintzetan bat egiteko saiakeran.

gure baitan heretsita gelditzea ekidituz harreman ireki eta anizkorrerako jite zabala erakutsiz.

2.3.8. Konturatzen gara Jainkoaren Erreinua ezin daitekela ezelango eredu ala projektu historikotan gauzatu. Horrexegatik egoeren aniztasunak adierazten dituen garaien zantziekiko sentikorrak eta irekiak izan behar dute gure elkarteak. Halaz ere, kritikoki konszienteak izan behar dugu fede-projektuak deitzen diren guztiak ez direla Jesusek iragarritako eta herri bakoitzaren historian gauzatutako Erreinuarekiko koherenteak eta leialak.

3.- Euskal Herriko Kristau Elkarte Herritarren praxi anizkorra

3.0. Gure berberatasuna irudikatzen duten oinarriak eta aukerak praxian gauzaten dira. Gure jokamolde eta konpromezu-eremu ezberdinek gero eta gehiago zehazten dituzte gure xedeak estrategia anizkorrak bereganatzeko gai den proyektu orokorraren bidez. Projektu eta praxi hau eraginkorrak izan daitezen eta boluntarismo eta aktibismoetan desagertu ez daitezen planifikatu egin behar dira honako aspektu eta mailetan:

3.1. Errealitatearen azterketa eta horretarako metodoak

3.1.1. Kristau Elkarte bezala daramagun praxiaren plangintza gure herriak bizi duen errealitatearen azterketatik abiatu behar da. Egoerak oso ezberdinak direnez, azterketen zabaltasuna eta aniztasuna eskatzen dute tokien inguruabarren eta gaien arabera eta adinen ezberdintasuna kontutan izanik.

3.1.2. Beharrezko azterketa anizkor honen barnean, uste dugu edozein azterketa ez dela baliozkoa. Errealitatearenganako hurbilketa soila, berehalako ikuskera zein ikuskera tolesgabea eta gure herriaren egoera boterearen eta honen planteamendu erreformazaleetatik ikusteko modua arbuia egiten dugu.

3.1.3. Gure azterketak lerro jakin batzuetatik egiten ditugu; lerro hauek honako oinarrietan finkatzen dira: herri eta klase-aukeran, herri aske eta subiranoa eta gizarte anaikor eta berdinkidea lortzeko gure lehia eta buruketan, pertsonak, bai egituren eta bai sistemen barnean, erabat eraldatzera bultzatzen gaituen Jainkoaren Erreinuak utopian dugun fedean.

3.1.4. Aukera hauetatik abiatuz injustiziaren sortzaile diren bideak aurkitzen laguntzen diguten errealitatea-azterketarako eskema sozio-politikoak aukeratzen ditugu, ikuspegi kritiko dialektikoaz egoera eta kontraesan hauen kausak ikusarazten dizkigutenak eta gainditzeko bitartekoak eskaintzen dizkigutenak.

3.1.5. Bitartekotza sozio-politikoak anizkorrak dira eta zapalketa eta kontraesanen aurkikuntzarako lagundu egin behar dute eta herrien zapalkuntza-askapena behar-eskakizunen dialektikan barnearazteko gai izan, hauexei erantzun nahi bait diegu gure kristau-aukeraren baitatik beste talde eta kolektiboekin elkarlanean.

3.2. Kristau Elkarte Herritarren xedeak eta konpromisoak

3.2.1. Elkarte bakoitzak bizi duen errealitatearen azterketaren baitatik epe jakinetan gauzatzeko helburuak proposatu behar ditu. Programakuntza honek eraginkortasun eta operatibitate gehiago lortzen lagunduko digu ematen ari garen urratsak egiaztatu eta neurtzea ahalbidetuz zehazgabetasunak eta noraezak ekidituz.

3.2.2. Hemen ere xedeen aniztasuna beharrezko da gure proiektu amankomunaren koherentziaren barnean aurkitutako premia eta eskakizunen arabera.

Kristau elkarte bezala onartutako proposamen gisa eta gure egoeren ezberdintasun eta aniztasunaren barnean burutzeko konpromezu gisa adierazten ditugu gure helburuak. Garrantzitsua da helburu hauek elkarlotuta eta koordinatuta izatea elkarlaguntza izan dezaten.

3.3. Gure antolaketa malgua eta anizkorra.

3.3.1. Kristau Elkarte Herritarrak ez gara erakunde egituratua eta burokratizazio mota guztiak ekidin nahi ditugu. Ez gara profesionalki eta paperen artean ari.

3.3.2. Halaz ere behar dugu, eta izan ere ba dugu, nolabaiteko egituraketa taldeen aniztasunaren barnean harremanak mantentzeko eta elkarren berri ahalik eta azkarren izatea erraztuko diguna.

3.3.3. Egituraketa erabilgarria izan dadin disziplina eta koordinazio-arauak beharrezkoak dira. Aldi berean aniztasun eraginkorraren garapenari lagunduko dioten giza eta material baliabideak behar ditugu.

3.4. Lan metodoak.

3.4.1. Jartzen ditugun helburuak lortzeko eraginkorrak izaten lagunduko diguten lan metodoak erabili behar ditugu. Metodo hauek modu koordinatuz lan egiten laguntzen digute.

3.4.2. Baina kontua ez da guztiek gauza bera eta modu berean egitea. Uniformetasunean eroriko ginateke. Elkarte bakoitzaren lan-moduetan aniztasun metodologikoa beharrezkoa da, guztihonek esperientziak aberastera eta eraginkortasun handiagora bait garamatza.

3.4.3. Aniztasun metodologikoa lerro eta inspirazio amankomun gisa ulertzen dugu. Zehatzago esanda, Euskal Herriko Kristau Elkarte Herritar bezala Askapen Teologiaren oinarri metodologikoen aldeko aukera egin dugu. Hegoameriketako berezi berezia dena gurera berraldatu gabe onartu egiten ditugu Teologia horren gogoeta eta metodo pastoral eta teologikoak gure iharduera eta gogoeta jokabideak norabidetu egin bait ditu Euskal Herriko oinarritzko kristau mugimendu bezala aurrera egiteko lagundu digularik.

3.5. Ebaluaketa eta bereizkuntza-erizpideak

3.5.1. Ongi ulertutako aniztasuna kontrastaketa eta etengabeko ebaluaketa kritikoaren forma da. Aniztasunez aritzea ez da isolaturik izatea, baizik eta gure berberetasunaren oinarrien

baitatik elkarlotuta aritzea. Horrexegatik gure elkartearen eta beraien praxiaren ebaluaketa gure aniztasunaren eskakizun espezifikoa da eta gure batasun eta koherentziaren bermea.

3.5.2. Gure proiektu eta planifikazioen jatorrasuna bereizten laguntzen diguten erizpideak gure berberatasunaren oinarrietan jasota daude eta, halaber, Jesusen jarraipeneko batasun-gakoen erreferentzian eta Jainkoaren Erreinuaren baloreekiko eta Euskal Herriko Kristau Elkarte Herritarren aukerekiko atxekimenduan.

4.- Ondorio eragileak

4.0. Honeraino esandakoen lerro nagusiak, orohar, elkarte guztiek onartzen dituzte planteamendu orokorrei dagozkienetan bederen.

4.0.1. Halaz ere, zenbait talderen ustez, beharrezko da gehiago zehaztea; bestela dokumentu hau zalantzarria gerta daiteke zenbait aspektu eta baieztapenetan. Ba dira zenbait arazo konkretu, hala nola ETA-ren ekintza harmatuei buruzko jarrera, Autonomi Estatutu eta Autodeterminazioaren aurrez aurreko estrategia orokorra, jite nazionalista ala sozialistako aukera konkretuak, euskara ... aniztasunaren azterketa zehatzagoa behar dutenak.

4.0.2. Bestalde, gizarte-bizitzan aniztasunak duen zailtasunak eragozpen serioak dakartza Kristau Elkarte Herritarren barne-aniztasunerako.

Beharrezkoa dugu, halaber, bizi dugun errealitatearen azterketa sakonagoa eta gure harremanetan egiazko aniztasuna egi bihurtzea ahalbidetuko digun metodo pedagogikoa.

4.1. Identitate eta koordinazioaren funtsezko gure guneak.

4.1.1. Adierazi ditugu dagoeneko 2.1. eta 2.2. puntuetan, batez ere honako hauek azpimarratuz: hil eta berbiztutako Nazaretoko Jesusen aldeko gure aukera sinestreduna horrexetan finkatzen baita gure esperantza eta utopia; gure herriaren aldeko aukera klase herritarrekiko, pobreekiko eta beraien askapen eta kulturaren alde burrukatzen duten herriekiko solidaritzaz, Derion (1980-ean) finkatutako oinarrietan jasota dagoenez:

Kristau Elkarte Herritarrak gara. Hiru elementu aldentezinek irudikatzen gaituzte; horietariko bat ere ezin dugu baztertu. Klase eta sektore herritarrekin solidarioak sentitzen gara eta Euskal Herriko askapen nazional eta sozialaren eta, orohar, gizakoiaren aldeko prozesuan barneratuak, Estatu eta mundu mailako beste herriekiko solidaritzaz, noski. Abiapuntu honetatik jartzen gara Jainkoaren aurrean eta elizaren baitan Nazaretoko Jesusengan sinesten dugunon elkarte bezala, Haren eginkizuna eta baliok onartuz eta bere askapenaren alde burrukatzen duen gure herri zapalduaren erdian mezu hori bizi eta iragarten saiatuz. Gure herriarekiko solidaritzaz geure fedea bizi izateko jitean aurkitzen dugu kristau izateko elementu berezia eta bereizgarria (1.1)

4.1.2. Gutienezko puntu hauek baieztatu egin behar ditugu kristau elkarte izatekotan eta elkarte bezala ihardutekotan. Halaz ere,

guztiok onartutako oinarri hauek, etengabe argitze-prozesuan egokitu egin behar ditugu eta, bai elkartearen barnean eta bai beste elkarteekiko loturan, egunero bizi dugun errealitateira moldatu.

4.1.3. Gure herriko explotatuenen eta zapalduenen arazo herritarrekiko konpromezuarekin loturarik gabe ezin da egiazko aniztasunik izan ez gauzatu. Ebanjelioaren irakurketa amankomuna eta alderatua errealitate horien baitatik egin behar dugu.

4.2. Elkarteen plangintza

4.2.1. Elkarte bakoitzaren eraginkortasuna bere plangintzaren pentsutan ere ba dago. Hau da, elkarte bakoitzak, Euskal Herriaren barnean bizi duen errealitatearen azterketa abiapuntutzat hartuta, helburu batzu jarri behar ditu, horiek burutzeko beharrezko diren bitartekoak eta pertsonak kontutan izanik.

4.2.2. Plangintza hau ezinbestean ezberdina eta anizkorra izango da. Halaz ere, ekintza-estrategia amankomunetan bat etorri beharko dugu batasun eta kohesio-zentzua izan dezagun eta ekintza bateratuak burutu ahal ditzagun. Ba ditugu era honetako esperientzia positiboak (presoen, euskararen, amnistiaren, negoziazioaren etab. aldeko ekintzetan).

4.2.3. Maiz konturatzen gara eragin publiko nabariagoa ala elkarteen arteko komunikazio zuzenagoa izateko dugun bitarteko egokien gabeziak. HERRIA 2000 ELIZAK eginkizun oso garrantzitsua betetzen du eritzi publikoari begira eta egiteko horrek merezi du indartzea. Baina beharrezko dirudi komunikaziorako barne-organua planteamenduen alderaketa zabalagoa eta iraunkorra bideratzeko gauza litzatekena.

4.3. Aniztasun handiagora irekitako elkarteak: beste talde eta parrokiekiko harremanak.

4.3.0. Beste taldeekin harremanetan izateko beharraz jabetzen gara irekitasun hori beharrezko baita gure hazkunde eta aberastasunerako beregan dituen eragozpen guztiak gora behera.

4.3.1. Garrantzitsua da gure elkarteek harreman eta komunikazioa izan dezatela Eliza Ofizialarekin harremanik ez duten talde eta pertsonekin, fede-planteamendu ezberdinaren bila dabilzanekin hain zuzen. Ildo horretatik interesgarri litzateke gure lanek eta komunikazioek -orain arte gai jakin batzuen ingurukoak batez ere- beste zenbait eremutako gaiak, hala nola ekologia, feminismoa, intsumisioa, eta abarri buruzko gure ikuspuntuak eta sentiberatasuna ere azal ditzatela.

4.3.2. Parrokiekiko gure harremanari dagokionez, ordea, lehenik zera ikusten dugu, esperientzia eta praxi ezberdinak daudela gure elkartetan eta beraz haietango gure ezarpena eta haietako harremana anizkorra izan behar duela ingurumen eta textuinguruaren arabera. Litekena da talde autonomoen iharduera promozionatzea baina harreman zehatza eta artikulatua ongi finkatuta, parrokia beretan identitate ezberdinekoak baina beraien artean komunikazioaren, ospakizunen eta ekintza-konpromezuen bidezharremanak izateko interesaturik dauden taldeak ari daitezzen.

Parrokia barneko harreman honek zera eskatzen du:

- . Beste parte ala parteen onarpen garbia.
- . Ezberdintasunen ezagutza zehaztua.
- . Besteekiko harremanetan guztiok irabazle atera ahal garela-koaren uste sendoa.
- . Harremanen une eta arrazoien ezarpen hitzarmendua.

4.3.3. Beste zenbait kristau talderekin harreman motaren bat mantentzea nahi izatekotan, garrantzitsua da, halaber, harreman-jiteaz pentsatzea ezberdintasunaren baitatik besteak onartu eta besteekiko interesa ongi finkatzeko. Ezin ahanz dezakegu gure Herriaren ezberdintasuna eta zatiketa sozio-politikoaren eragozpena harreman hauek gauzatzekoan.

4.3.4. Bestalde, zenbait konpromezu sozio-politikoren alorreko lanak denbora asko darama gaur egun eta, behin baino gehiagotan, zaila gertatzen da elizaren eraldakuntzaren konpromezuz batera burutu ahal izatea. Halaz ere, soka beraren bi muturrak beteratzen saiatu behar gara: harremana eta identitatea zaindu bien arteko oreka bilatu arte. Interesgarri litzateke elkarte bereko kideek talde-mota ezberdinetako - eliztarrak eta sozialak - kide izatea, horrela komunitate bakoitzaren bi-zipenak aberastu egin bait daitezke.

4.3.5. Honenbestez, honako proposamen zehatz hauek aurkezten ditugu:

1. Elkarte bakoitzeko kide bat gutxienez elkartearengandik hurbilen den parrokiarekin lankidetzara iraunkorrean aritu dadila.
2. Gure inguru hurbilean hartzematen ditugun zuzengabekeriekiko presentzia profetikoa mantentzea.
3. Elkartearen zenbait ospakizunetarako parrokiako lokalak erabiltzea.
4. Beste pertsona eta taldeak gonbidatu ezagut gaitzaten eta, alderantziz, geu ere beste talde eta pertsonak ezagutzera hurbildu eta talde zein pertsonakiko harremanak mantentzea.
5. Egin daitezkeen salaketa publikoetan testu biblikoetan eta eliz dotrina sozialaren esanetan eta irakatsietan oinarritzea.
6. Parrokiako zenbait ospakizunetan parte hartzea.
7. Talde zein pertsonak gonbidatu Kristau Elkarte Herritarren ospakizunetara.
8. Bizkaiko Kristau Elkarte Herritarren ordezkari bat "Elkarteen Mahain", entzule gisa, partaide izatea, beraiekin harreman iraunkorrak izan nahiko genituzkeela jakinaraziz, nahiz eta beraien koordinazioan ez sartu.

4.5. Jarrera politikoak eta Kristau Elkarte Herritarretango partaidetza

4.5.1. Elkarteen barnean jokabide politiko ezberdinetarako joerak ikusi egiten ditugu, eta nahiz eta teoriak elkarrekin berean batera ihardun ahal izatea posible izan, praktikan zaila gertatzen da, Dena dela, botereal finkatutako gehiengoaren eta gutxiengoaren arteko dikotomia ekidin behar dugu.

4.5.2. Eukal Herriaren errealitatearen azterketa amankomun eta oinarritzotik abiatu behar dugu aukera amankomun eta oinarritzotara iritsi gaitzen, kritika, autokritika eta elkarrizketa textuinguruan eta ezberdintasunaren eta anaitasunaren onarpenaren barnean. Banantzen gai-

tuzten arazo jakinetan, adibidez, burruka harmatua eta honi buruzko jarretan beharrezkoa da elkarrizketa indartzea eta bateratzen gaituena kontutan hartzea nahiz eta ezberdintasunak ez saihestu

4.5.3. Dena dela, arrisku bikoitza ekidin behar dugu. Beste batzuegana hurbiltzeagatik gure planteamenduak gehiegi beheratzea ala oso arradikalak izateagatik ghetto bilakatzea.

Beraz, Kristau Elkarte Herritarrak gara Nazaretoko Jesusengan, Jaunagan dugun fedeez identifikatuak; zapalduekin eta esklabuekin anaitasunez eta solidaritatez, geure bizi-aukera historikoa bide dala, elkarlotuak; zapaltzaile guztiekiko oposizioan; bizi eta lantoki dugun Euskal Herriko errealitateari so eginaz eta errealitate hori aztertuz. Jarrera irekiak, zaluak, elkarrizketatzaileak, garaien zantzekiko sentiberak bultzatu nahi ditugu; ba dakigu, jakin, sinestegun-projektu guztiak ez direla Erreinuarekiko koherenteak eta leialak. Erizpide birpentsatuen bidez egin nahi dugu gure heziketa, Elizarekiko koherenteak eta eguneroko bizitzako praxi konprometatuan frogatuak, gure Herriak beste herriekiko askanen solidariorantz bidea egiten duen bizitza horretan hain zuzen.

Zarautz, 1991 - 3 - 2

